

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren 25. urteurrena

Fernando Ramallo

Vigoko Unibertsitatea

framallo@uvigo.es

*Itzultzailea: Luisa Ruíz de Mendoza**

Sarrera-data: 2017-04-03 | Onartze-data: 2017-04-28

Laburpena. Europako Kontseiluaren Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna 1992an onartu zen, eta, beraz, 25 urte bete ditu aurten. Nazioarteko itun hori 1998an jarri zen indarrean, eta Europako eremu urriko hainbat hizkuntza babestu eta sustatzeko aurrerapauso handia izan zen. Hala eta guztiz ere, lan handia egin beharra dago oraindik gaur egungo bidegabekeri sozial nabarmena gainditzeko, baita ituna berretsi duten herrialdeetan ere. Artikulu honetan azken 25 urteetako bilakaera aztertuko dugu. Horretarako, berriaz subjektiboa izango den soziolinguistika kritikoa izango dugu abiapuntu. • **Hitz gakoak:** *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, neoliberalismoa, hizkuntza-politika, eremu urriko hizkuntzak.*

Abstract. The Council of Europe's European Charter for Regional or Minority Languages was adopted in 1992, and therefore celebrates its 25th anniversary this year. The international treaty came into force in 1998, and constituted a major step forward in the effort to protect and foster Europe's minority languages. Nevertheless, there is still much work to be done in order to redress the patent social inequality that still exists today, even in the countries that ratified the Charter. This paper analyses the evolution of the last 25 years from a purposefully subjective and critical sociolinguistic standpoint. • **Key words:** *European Charter for Regional or Minority Languages, neoliberalism, language policy, minority languages.*

* BAT aldizkariko argitalpen batzordeak eskerrak eman nahi dizkio itzultzaileari artikulu honen itzulpena egiteko izandako prestutasunagatik. Eskerrak, era berean, UPV/EHUko Letren Fakultateari, Itzulpengintza eta Interpretazioa Graduak hainbat praktika BAT aldizkariarekin egiteko hitzarmena Soziolinguistika Klusterrarekin sinatzeagatik.

SARRERA

I
1992ko azaroan Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna onartu zen, Europako eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko legezko tresnarik garrantzitsuena. Izan ere, akordio hori gutxiengoaren hizkuntzen babesaren alde egiten duen nazioarteko hitzarmen lotesle bakarra da, eta, ondorioz, hizkuntza-politika arloko munduko tresnarik garrantzitsuena da. Aipatzekoa da gutunak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzen dituela, hizkuntza horiek mehatxupearan dauden Europako ondare kulturaltzat hartzen direlako. Neurri apalagoan, ituna hizkuntza-gutxiengoez eta giza eskubide linguistikoez arduratzen da. Hori guztia dela eta, bere helburu nagusia kulturala da, hau da, hizkuntzak bultzatzen ditu Europako kultura-aniztasuna bermatzeko ezinbesteko elementu diren neurrian. Horrez gain, gutunak bere gain hartzen ditu eskualdeetako hizkuntzak, eremu urrikoak, lurraldekoak ez direnak, baita erabilera mugatuko hizkuntza ofizialak; esaterako: katalana, euskara eta galiziera¹.

Erabaki horren bitartez Europako Kontseiluak esku hartu zuen aurreko hamarkadetan Europako instituzioen agenda politikoan gora eta behera zebilen problematikari erantzuna emateko². Baliabide horri esker, aurrera egin zen eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen babesean, nahiz eta hizkuntza guztiak kontuan ez hartu eta haietako batzuei besteei baino laguntza gutxiago eskaini. Sei urte itxaron behar izan ziren testua indarrean sartu arte, 1998an. Bost estatuk berretsi zuten, horien artean Liechtenstein, itunaren definizioan sartzan den hizkuntzarik ez duen herrialdea. Hurrengo urteetan herrialde asko atxiki ziren, baina 2010etik aurrera Bosnia-Herzegovina izan da proiektuan sartu den bakarra. 2017an, Europako Kontseilua osatzen duten 47 estatueta 33k sinatu dute hitzarmena, eta horietako 25etan dago indarrean³. Beraz, oraindik lan handia egin beharra dago Europako hizkuntza gutxituak babesteari dagokionean.

Gaur egun ituna indarrean duten estatuak kontuan hartuta, Gutunak Europako 79 eremu urriko hizkuntza hartzen ditu bere gain. Hala ere, errealitatean 203 hizkuntza talde babesten ditu, 79 hizkuntza horietako asko hainbat lurraldeetan hitz egiten direlako. 203 talde horietatik, 70 talderi II. atalak bakarrik eskaintzen die babesa (7. artikulua), beste 126ri II eta III. atalek (8. artikulutik 14.era). Aipatutako bi kategorietan sartzan diren 7 talde daude, hizkuntza horiek zein lurraldetan erabiltzen diren arabera. Itunak aintzat hartzen dituen hizkuntza gehienek 10.000 hizlari baino gutxiago dituzte, eta dozena erdik bakarrik ditu 50.000

**1992ko azaroan
Eskualdeetako
edo Eremu
Urriko
Hizkuntzen
Europako
Gutuna onartu
zen, Europako
eremu urriko
hizkuntzak
babestu eta
sustatzeko
legezko tresnarik
garrantzitsuena.
Akordio hori
gutxiengoaren
hizkuntzen
babesaren alde
egiten duen
nazioarteko
hitzarmen lotesle
bakarra da.**

**Europako
Kontseilua
osatzen duten 47
estatuetako 33k
sinatu dute
hitzarmena, eta
horietako 25etan
dago indarrean.
Beraz, oraindik
lan handia egin
beharra dago
Europako
hizkuntza
gutxituak
babesteari
dagokionean.**

**Itunak aintzat
hartzen dituen
hizkuntza
gehienek 10.000
hizlari baino
gutxiago dituzte,
eta dozena erdik
bakarrik ditu
50.000
erabiltzaile baino
gehiago.**

erabiltzaile baino gehiago. Azpimarratzeko moduko kontua da Gutunak ez dituela babesten ez zeinu hizkuntzak, ezta etorkinen hizkuntzak ere, nahiz eta azken horiek historikoki lurralde batean finkatuak dauden etorkin komunitateak izan; esaterako, Alemaniako turkiarrak edo Frantziako aljeriarrak.

Ekarpen labur honen helburua da indarrean sartu eta ia 20 urtera itunak lortutakoa eta dituen mugak aztertzea. Artikulu honetan Gutunaren karakterizazio formala eta horren balorazioa aurkeztuko da, nire gaurko izaera soziala biltzen duten hainbat ikuspuntuetatik abiatuz, hau da, gutxiengo linguistikoan interesa duen soziolinguista gisa, Gutuna be-
tearazteaz arduratzen den adituen batzordearen kide gisa, eta galizieraren hiztun berri gisa hitz egingo dizuet. Aipatzekoa da hizkuntza hau Gutunaren babesa duen hizkuntza gutxitua dela, eta biziraupen datu kezkarriak dituela.

GUTUNAREN EGITURA

I

Itunak hitzaurrea eta beste 5 atal ditu⁴:

- I. atala (lehenengo artikulutik 6.era). Xedapen orokorrak ageri dira, eta “eskualde-hizkuntza edo eremu urriko hizkuntza” definitzen da.
- II. atala (7.artikulua). Artikulu bakarreko atala bada ere, Gutunaren atal garrantzitsuenetarikoa da, artikulu horren edukia lehenengo artikuluko definizioan sartzen diren hizkuntza guztiei ezartzen baitzaie, estatuak horren inguruan dituzten lehentasunak edonolakoak direla ere.
- III. atala (8. artikulutik 14.era). Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen egoerarekin zerikusia duten betebeharrak zehatzak adierazten dira. Betebeharrak hizkuntza horiek erabiltzen dituzten erkidegoetako egunero bizitzako hainbat arlotan jarraitzekoak dira: hezkuntzan, justizian, administrazioan, kulturean, ekonomian, gizartean eta mugaz harandikoko trukeetan. Hemen, II. atalean ez bezala, estatuak hautatze ahalmen nabarmena du hartutako konpromisoen neurriari dagokionez.
- IV. atala (15. artikulutik 17.era). Itunaren aplikazioari dagokion xedapenak aurkezten dira, esaterako, onartutako betebeharrak betetzen direla kontrolatzen duen prozedura azaltzen da. Prozedura horretaz arduratzen da ituna berretsi duen estatu bakoitzeko kide batez osatutako adituen batzordea.
- V. atala (18. artikulutik 23.era). Azken xedapenak biltzen ditu, Europako Kontseiluak itunaren berrespenerako ezarritako proze-

durei dagozkien xedapenak, hain zuzen. Atal honetan adierazten da, gainera, Aldeek eskubidea dutela 7. artikuluko 2. 3. 4. eta 5. paragrafoan xedatutakoaren kontrako eragozpenak azaltzeko.

Kontuan hartzekoa da Aldeen askatasuna bermatzeko tresna dela, haien hizkuntza-aniztasuna kontrolatzeko bide bat eskaintzen diena. Horregatik, Itunera batzean Alde bakoitzak zehaztu beharko du zein eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzari ezarriko zaion III. atalean (8. artikulutik 14.era) xedatutakoa. Horrez gain, hizkuntza horietako bakoitza zein neurritan babestuko den ere erabaki beharko dute, askotariko aukerak izango dituztelako, eta aukera bakoitzak konpromiso neurri txikiagoa edo handiagoa hartzea eragingo duelako. Horrek guztiak esan nahi du borondatez onarturiko legezko betebeharez ari garela (ez eskubideez) eta horiek *praktika onak* jarraituz bete behar direla (Kraus 2008; cf. Grin 2003).

LABURPEN TXIKI BAT: 1992-2017

I

Azken 25 urte hauetako bilakaera positiboa izan da. Hizkuntzei dago-kionez, ukaezina da Gutunak kultura-aniztasunaren izenean egindako lana, eta goraipatzekoa da haren originaltasuna, diseinua eta eragina. Hauek izan dira itunaren lorpen nagusiak⁵:

- Europako gutxiengoan hizkuntzak agenda-politikoan sartu ziren ituna indarrean sartu zenean.
- Tresna hau indarrean duten herrialde gehienetako etxeko hizkuntza politikak garrantzia hartu du. Zehazki, aurrerapen nabarmenak egin dira hezkuntza-sailari eta administrazioari eragiten dieten legetan.
- Gutunak ezarritako kontrol eta jarraipen prozedurari esker, eremu urriko hizkuntzen hiztunek haien elkarteekin edo GKEekin kontaktuan jarri daitezke adituen batzordean aktiboki parte hartu ahal izateko.
- Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza gehien kasuan, Gutunak laguntza neurtezina eman dio herrialde batzuen etxeko legeriari. Kasu askotan, estatuaren errekonozimendurik ez zuten hizkuntzek —eta errepresiopeko egoeran zeuden beste batzuek ere— bere estatusa hobetu dute.
- Itunak aukera eman du hizkuntza ofizial edota indartsuen hiztunek dauzkaten aurreiritzi batzuei aurre egiteko (eta, kasu batzuetan, hizkuntza gutxituen hiztunek dauzkatenei aurre egiteko ere), bereziki, eremu urriko hizkuntzen aldeko diskriminazio positiboa egitea eragin du. Nabarmenezkoa da Gutunak 7.2 artikuluan honakoa adierazten duela: hizkuntza gutxituen alde hartzen den edozein

III. atala.
Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen egoerarekin zerikusia duten betebeharrak zehatzak adierazten dira.
Betebeharrak horiek hizkuntza horiek erabiltzen dituzten erkidegoetako egunero bizitzako hainbat arlotan jarraitzekoak dira: hezkuntzan, justizian, administrazioan, kulturean, ekonomian, gizartean eta mugaz haraindiko trukeetan.
Hemen, II. atalean ez bezala, estatuak hautatze ahalmen nabarmena du hartutako konpromisoen neurriari dagokionez.

**Ituna
neoliberalismoa
eta demokrazia
liberala
indartzen ari
zela sortu zen.
Gizartearen
psikologizazio-
aren inguruan
eraikitako
ideologia gisa
ulertu behar da
neoliberalismoa;
alegia,
subjektibotasune
an esku hartzeko
forma gisa,
pentsamendu
erak eta praktika
sozial nagusiak
egonkortzeko
teknika gisa, eta,
ondorioz,
menderatzea
normalizatzeke
modu gisa.**

motatako neurria “ez da hizkuntza zabalduagoen hiztunen aurka eginiko diskriminaziotzat joko”.

Kontuan hartuta berriki gertatutako historian zehar gutxiengo linguistikoaren gaiari heldzean egon den ardura politiko falta, argi dago aipatutako lorpen guzti horiek ez direla gutxiesteko modukoak. Hala ere, nire ustez, Gutuna ez da akordioak dakartzan arazo guztiei heltzeko tresnarik egokiena, hau da, ez da tresnarik egokiena Europako eremu urriko hizkuntzen babesaren eta sustapenaren inguruko guztiaz arduratzeko. Kritika hori testuinguruan jartzeko, Gutunak dituen arazo nagusiak aurkeztuko ditut jarraian, eta honako auzi hauek bereiziko ditut: a) bere sorreraren testuinguru historia; b) betebeharren haustea; c) ulertezina bada ere, Gutunak zeinu-hizkuntzak ez babestea; eta d) biztanleek tresnarekiko duten ezjakintasuna⁶.

NEOLIBERALISMOAREN TESTUINGURUA

I
Lehenik eta behin, beharrezkoa da Gutuna sortu eta Europako Kontseiluan onartu bitartean gertatzen ari zen une historikoaren inguruko xehetasun batzuk gogoan izatea. Ituna neoliberalismoa eta demokrazia liberala indartzen ari zela sortu zen. Bi kontzeptu horiek ez dute esan nahi soilik merkataritza-logika gizabizitzaren arlo guztietara zabaldu zenik; batez ere, gizartearen psikologizazioaren inguruan eraikitako ideologia gisa ulertu behar da neoliberalismoa; alegia, subjektibotasunean esku hartzeko forma gisa, pensamendu erak eta praktika sozial nagusiak egonkortzeko teknika gisa, eta, ondorioz, menderatzea normalizatzeke modu gisa.

Hein batean, Gutunak ideologia horri aurka egiten dio, subjektu linguistiko autonomo eta aktibo baten presentziaren alde egiten duelako, hain zuzen, bere menpeko egoeraz kontziente den subjektuaren alde. Hori bai, akordioa bat dator garaiko testuinguruarekin. Gutuna logika neoliberalen menpe dagoela erakusteko froga argiena da hizkuntza-aniztasuna estatuen arazotzat jotzen duela. Uste horrekin batera, Gutunak auresuposatzen du hizkuntzak estatuen jabetza direla (Sokoloskaren “*la patrimonialisation des langues*” adierazpena txit egokia da), eta estatuei dagokiela hizkuntza batzuei lehentasuna ematea (gutxiengoaren baitan dauden gutxiengoak), eta hizkuntza bat zer den erabakitzea (cf. Duchêne 2008; Heller 2011). Ituneko hainbat ataletan, hitzaurrean esaterako, Gutunak argi uzten du ideia hori, eta adierazten du arazoa “subiranotasun nazionalaren eta lurralde-osotasunaren” arlokoa dela. Age-rikoa da neoliberalismoak joera duela subiranotasun nazionalaren lekua

hartzeko, eta Europako demokrazia formal ahula kaltetzeko. Hala ere, niretzat azpimarratzekoa da hizkuntza-aniztasunaren kontzepzio (neo)liberala estatuaren egitura-politikoaren baitan eraiki zela, estatu-nazioen idealizazio zaharkitutik abiatuz sortu zela, eta ez nazio edo komunitate historikoetatik abiatuz. Horrek Europako hizkuntza askoren minorizazioa indartzea ahalbidetu du, horien opresioa iraunarazteko sortutako egitura eta diskurtsoen bitartez (Holborow 1999: 87). Oraingoz ez da beharrezkoa esatea hizkuntza-politika funtsezkoa dela eta izan dela Europako estatuaren nortasuna eraikitzeko, baina, oso maiz, horrek hizkuntza nazionaleri bakarrik egiten die erreferentzia, alegia, estatuaren pribilegio konstituzionalak jasotzen dituzten hizkuntzei (cf. Arzoz 2014b).

Azken hori sekulako iraina da. Izan ere, hizkuntza bera neurri desberdinean babesten da estatuaren arabera, itunak lurraldetasun-printzipioa hizkuntza- eskubide kolektiboan gainetik jartzen dituelako (Soldat-Jaffe 2014: 3). Hori kontraesankorra da kontuan izanik itunak ez dituela estatuak edo hiztunak babesten (nahiz eta “erabiltzaileei” zeharkako erreferentzia mordoa egin), baizik eta hizkuntzak. Gainera, ikuspuntu kulturaletik babesten dituela kontuan izanik, muga eta oztoporik gabe egin beharko luke haien alde. Horrez gain, hizkuntza-aniztasunaren ikuspuntu hertsiki horrek etorkinen hizkuntzak eta zeinu hizkuntzak babesgabe uzten ditu.

Bestalde, itunak era abstraktuan jorratzen du aniztasuna, Izan ere, Europako pentsamendu erromantikoari jarraiki ulertzen da aniztasuna, EBren lema honakoa izanik: aniztasunean oinarritzen den batasuna “Europa harmoniatsuan” (Arzoz 2008; Kraus 2008; Soldat-Jaffe 2014; Williams eta Williams 2016). Kontzeptu neoliberal horrek aniztasuna kapital kulturalizatzen hartzen du (Urcioli 2013), eta diskurtso akademikoan gogor sartzeaz gain, kontzeptu erabakigarria izan da eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzek betetzen duten espazio desberdindua ukatzeko. Beraz, premiazkoa da aniztasunari heltzea batasunaren falazia baztertuz, eta desberdintasunetik abiatuz, kontzientziazatik *praxisera* igarotzea. Batasuna ez da berez existitzen, desio asegabea besterik ez da, beharrezkoa ez den desio lortezina. Pentsamendu edo kontzeptu neutralizatzaile horren gainean menperatzeko modu isil bat eraikitzen joan da, *statu quo*-a mantentzen laguntzen duena. Beste modu batera esanda, neutraltasuna ez da diskurtso menderatzailetik haratago existitzen. Ez dezagun ahaztu aniztasuna materialtasunetik heldu ezean “hierarkiarekin guztiz bateragarria dela [...] eta ez dela balore bat bere horretan” (Eagleton 2017: 43)

Horregatik, nire ustez, marko demokratiko berri bat lortzeko abiapuntua ideologia horrekin amaitzea da, ideologia horrek inguru arazotsu baterako

**Hausnartu egin
behar da Aldeek
betebeharrak
betetzen ez
dituztenean
sortzen den
hutsunearen
inguruan, batez
ere, ez-betetze
hori hainbat
jarraipen-
zikloren buruan
gertatzen denean.**

bidean jartzen duelako sistema. Nolanahi ere, estatuen artean “aniztasu-
nean oinarritutako batasunaren” alde agertzen den ideologia horren balioa
onartuz gero, *estatuen barruan* ere aplikatu beharko genuke printzipio hori
(McDermott 2016: 2), eta hori, ez da gertatzen errealitatean. Hori horrela
ez bada, eremu urriko hizkuntzen sustapenak ez du aurrera egingo, eta
askatzailea ez den erretorika besterik ez da izango (Holborow 1999).

Jakina, argudiatu daiteke hori dela Gutunaren izateko arrazoia, eskubide
internazionalaren premisa baita estatuaren subiranotasunaren kontra ez
egitea. Hori bai, horrek ez du suposatuko behar hizkuntzen babeserako beha-
rrezkoa, baina aldi berean eskasegia den tresna baten laudorio akritikoa.

BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

I

Bestalde, hausnartu egin behar da Aldeek betebeharrak betetzen ez di-
tuztenean sortzen den hutsunearen inguruan, batez ere, ez-betetze hori
hainbat jarraipen-zikloren buruan gertatzen denean. Gutunak ikuska-
pen-mekanismo bat badu ere- adituen batzordeak kudeatzen duena, ale-
gia-kontuan hartu behar da ez dela organo judiziala, ezta sasi-judiziala
ere (Dunbar 2012: 150). Horrenbestez, Aldeek betebeharrak bereganatzen
dituzte, baina gutunak ez ditu proposatzen ituna bete ezean jarraitu be-
harreko neurri hertsatzailerik. Hala eta guztiz ere, nazioarteko ardurak
direnez gero, gutuna bete dadin gehien arduratu behar den erakundea
Parlamentu Biltzarra izan behar da, Europako Kontseiluko organo poli-
tiko nagusia. Bertan konpondu behar dira ez-betetze iraunkorren kasuak.
Horretarako, erakundearen printzipioak; hau da, demokrazia, legearen
boterea, eta giza-eskubideen errespetua azpimarratuko dituzten ekimen
diplomatikoa jo beharko da. Bestela, ez-betetzeak eredu txarra eman
diezaieke beste Aldeei. Noski, partikularrek ardura falta hau salatu le-
zakete Justizia Auzitegian, hori bai, nazioarteko hitzarmena izanik, ezin
da bermatu kexa hau jasoko denik (ikus Iglesias Velasco 2012).

Betebeharrak betetzeak berekin duen konplexutasuna hobeto ulertzeko,
hasteko, erabilgarria izango litzateke itunaren eragina baloratzeko adie-
razle-sistema bat garatzea, hau da, estatu bakoitzak betebeharrak onartu
ostean hizkuntzak babestu eta sustatzeko egiten dituzten ekintzak ze-
hazki aztertzea; alegia, komenigarria da egitea Gutxiengo nazionalak
babesteko Esparru-hitzarmenak izandako eragina baloratzen zuen az-
terketaren antzeko zerbitu (Malloy et. Al. 2009)⁷.

Ez-betetzeak asko izan badira ere, Espainiarekin eta 9. artikularekin
(Justizia) lotuta dagoen kasuistika bati bakarrik egingo diogu erreferen-

tzia. Orain arte, Espainiak lau jarraipen-ziklo gainditu ditu (lehenegoa hitzarmena indarrean sartu eta urtebetera egin behar da, eta hortik aurrera 3 urtetik behin gainditu behar da). Kontua da lehen jarraipen ziklotik (2005ean) hasita azkenera arte (2016ean), adituen batzordearen txosten orok eta Ministroen Kontseiluaren gomendio guztiek (horiek ez dute izaera teknikoa, baizik eta politikoa) adierazten dutela premiazkoa dela neurriak hartzea 9. artikuluan bereganatutako konpromisoak ezarri daitezzen, bereziki Botere Judizialeko Lege Organikoa Gutunari egokitzeari dagokionean. Legearen 231. artikulua erabat kontraesanean dago Espainiak Gutunean onartutako konpromisoekin. Aldera ditzagun 231 artikulua eta Espainiak Gutunean onartutako betebeharra.

Lehenengo taula. Botere Judizialeko Lege Organikoaren eta Gutunaren 9. Artikulua arteko konparaketa.

6/1985 Lege Organikoa, Botere Judizialarena (231. art.)	1. Jarduketa judizial guztietan, epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegi eta auzitegi gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, estatuko hizkuntza ofiziala baita. 2. Orobat, autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegi eta auzitegi gainerako funtzionarioek, baldin eta alderdietako bat ere aurka agertzen ez bada, hizkuntza hori ez dakiela eta horrek defentsa-gabezia sor dezakeela argudiatuz.
Gutuna 9. art 1a/1b/1c paragrafoak	“[Administrazio-prozeduretan, zigor arlokoetan eta zibiletan], hauek dira aldean konpromisoak: jurisdikzio-organismoek, aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ziurtatzea, beharrezkoa bada interpreteak eta itultzaileak erabilia, eta interesatuei inolako gastu gehigarrikeragin gabe”. [zigor arloko prozeduretan bakarrik]

2016eko urtarrilean argitaraturiko Ministroen Kontseiluaren gomendioek Estatuari eskatzen diote: “Marko juridikoa aldatzeko argi gelditu dadin Autonomia erkidegoko administrazio autoritateek, zigor arloko autoritate judizialek eta autoritate zibilek hizkuntza koofizialen bitartez egin ditzaketela prozedurak, Aldeetako batek horrela eskatuz gero”⁸. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen bitartez “prozedura egitea” zer den definitzean, azalpen txostenak honako hau adierazten du 94. paragrafoan:

“Horrek esan nahi du, dagokion eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza erabiliko dela Auzitegi aretoetan, baita hizkuntza hori erabiltzen duen Aldeak parte hartzen duen prozeduretan ere. Hala ere, Estatu bakoitzari dagokio ‘prozedura egitea’ horrekin zehazki zer esan nahi den zehaztea, bakoitzaren sistema judizialaren ezaugarriak gorabehera”.

Haatik, 9.1eko konpromisoetan (a.i, b.i eta c.i), hau da, hitzarmena berrestean Espainiak aukeratutako konpromisoetan, ez da zehazten Aldearen eskaerari erantzuteko baldintzarik. Eskualdeetako edo eremu

**Zeinu hizkuntzak
Europako
Kontseiluko
estatu-kide
guztietan
historikoki
dokumentatuak
izan diren eremu
urriko
hizkuntzak dira.
Guztiak dira
eremu urriko
hizkuntzak, hau
da, estatu bateko
talde nagusiak
baino pertsona
kopuru
txikiagoak
osatutako
taldeak
erabilitako
hizkuntzak.**

urriko hizkuntzaren hiztunari eskaintzen zaion eskubideaz ari gara, eta hizkuntza ofiziala behar bezala menderatzen duenean ere eskaintzen zaio. Desberdintasun nabarmena dago, beraz, *Giza eskubideen Europako Hitzarmeneko 6.3an* xedatzen denarekin alderatuz gero: “akusatu orok, gutxienez, honako eskubideak ditu: (e) interprete baten laguntza dohainik jasotzeko eskubidea, **auztegian erabilitako hizkuntza ulertzen edo hitz egiten ez badu**” (Woehrling 2005: 169; Pla Boix 2012).

Jakina, konpromiso hori betetzeko aldi berean bi hizkuntza erabili behar dira batzuetan, alegia, prozesu elebiduna izan daiteke. Kasu horretan, konpromisoak doako itzulpen eta interpretazio zerbitzuak eman behar izatea dakar (prozedura kriminalak izatekotan), eta doakoak edo ordaindu beharrekoak (prozedura zibiletan eta administrazio prozeduretan). Beraz, baldintza horiek bete beharko ditu estatuak 9.1d konpromisoa onartuz gero, Espainiako Estatuaren kasua den bezala.

Gauzak erabat argi uzteko, gogoratu dezagun, nazioarteko hitzarmen guztietan bezala, berrespen prozesuak berekin dakarrela etxeko legeria Gutunaren xedapenetara egokituta egotea (Arzoiz 2014). Horren inguruan aipatzekoa da, azalpen txostenaren 53. paragrafoari jarraiki (4. artikuluari lotutakoa), barne legeria Gutuna baino murriztaileagoa baldin bada ere, horrek ez dizkiola oztupoak jarriko hitzarmenaren aplikazioari⁹.

Atal honi bukaera emateko, esan behar da ez-betetzetzat hartzen dugula estatuak hiru urtean behin Europako Kontseiluari bidali beharreko txostena berandu bidaltzea. Batz besteko atzerapena lau hilabetekoa da, baina badaude atzerapen handiagoarekin bidalitako txostenak ere, lau urteko atzerapenak, kasu batzuetan.

ZEINU HIZKUNTZAK

I Gutunaren gabezia nagusietako bat da Europako zeinu hizkuntzak aintzat ez hartu izana. “Ahazte” horrek ez du justifikaziorik eta haien egunerokoan zeinu hizkuntzak erabiltzen dituzten Europako biztanle guztientzat ondorio penagarriak dituen iraina da.

Zeinu hizkuntzak Europako Kontseiluko estatu-kide guztietan historikoki dokumentatuak izan diren eremu urriko hizkuntzak dira. Estatu bakoitzak zeinu hizkuntza nazionala eta zenbait aldaera dauzka, eta herrialde batzuek bat baino gehiago ere badute. Guztiak dira eremu urriko hizkuntzak, hau da, estatu bateko talde nagusiak baino pertsona kopuru txikiagoak osatutako taldeak erabilitako hizkuntzak. Nahiz eta estatu batzuetako legeek zeinu-hizkuntza nazionalak errekonozitu

³/₄konstituzioetan, desgaitasun legeetan, hezkuntza legerian eta hizkuntza legeetan (Wheatley eta Pabsch 2012)³/₄, estatu gehienek ez daukate hizkuntza-politika egituraturik zeinu hizkuntzak babestu edota sustatzeko. Horregatik, premiazkoa da hizkuntza hauek beste eremu urriko hizkuntzak bezala babestea, eta Europako zeinu hizkuntzen erabiltzaile-elkarteen eskakizunei erantzutea. Izan ere, Europako Gorren Batasunak (UED gaztelaniaz) hamarkada bat baino gehiago darama Europako Kontseiluari eskatzen Gutuneko aplikazio-eremua zabaldu dezan eta zeinu hizkuntzak kontuan har ditzan (Napier eta Leeson 2016).

Askotan esan bezala, Gutuna Europan dokumentatu izan diren eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko nazioarteko ituna da. Gutunean zehar ez dago zeinu-hizkuntzak formalki bazterten duen ezer¹⁰, baina indarrean sartu zenetik itunak eskualdeetako edo eremu urriko ahozko hizkuntzei jarri die arreta. Hori, hein handi batean, Gutunaren interpretazio baten ondorioz gertatu da. Izan ere, era inplizituan bada ere, gutunak ahozko hizkuntzak identifikatu ditu eskusiboki hizkuntza-gutxiengoekin. Hori dela eta, Europako Kontseiluak ez ditu zeinu-hizkuntzak eremu urriko hizkuntzat hartu, eta desgaitasunaren estigmatik heldu die (Quer eta de Quadros 2015). Beraz, zeinu-hizkuntzak dagoeneko Europako Kontseiluko beste hitzarmenetan babestuta daudela epaitu du, esaterako, desgaitasun bat duten pertsonen birgaitasuna eta integrazioa bultzatzeko hitzarmenean. Horrek Europako eremu urriko hizkuntza anitz ikusezin bihurtu ditu.

GUTUNAREN EZAGUTZA ETA AITORPENA

I
Gutuna ez da batere ezaguna biztanleen artean, ezta eskualdetako eta eremu urriko hizkuntzen hitzunen artean ere. Noski, hori ez da kontu berria. Ia ez dago legezko tresnen inguruan irakasteko pedagogiarik. Baina oraindik eztabaidagarriagoa da estatuek jarraipen-ziklo bakoitzeko emaitzak ez zabaltzea. Nire ustez, azken hori funtsezkoa da goraiatzeko moduko eztabaida ahalbidetzeko; eztabaida sortzailea eta berritzailea. Teorian bakarrik legislatzea ez da arazo sozialei heltzeko modu duina. Dagokion administrazioek konpromisoetatik haratago doazen ekintzak egin behar dituzte, itzulingururik gabe lortu ahal izateko hizkuntzen arloan berdintasuna bultzatzen duen gizartea. Horrek berekin dakar Gutuna jende artean zabaltzea, eztabaida sortzea, dokumentua aztertzea eta orokorrean gizarte osari helaraztea. Hizkuntza politikez arduratzen den administrazioek ezin diote uko egin bere erantzukizunari, eta Gutunaren kasuan, estatu bakoitzak dauka azken hitza ardura horretan. Hori bereziki beharrezkoa

**Europako Gorren
Batasunak
hamarkada bat
baino gehiago
darama
Europako
Kontseiluari
eskatzen
Gutuneko
aplikazio-eremua
zabaldu dezan
eta zeinu
hizkuntzak
kontuan har
ditzan**

***Gutuna ez da
batere ezaguna
biztanleen
artean, ezta
eskualdetako eta
eremu urriko
hizkuntzen
hiztunen artean
ere. Ia ez dago
legezko tresnen
inguruan
irakasteko
pedagogiarik.
Baina oraindik
eztabaidagarriag
oa da estatuek
jarraipen-ziklo
bakoitzeko
emaitzak ez
zabaltzea.***

da 7. artikulua babesa besterik ez duten hizkuntzentzat, hauek baitira ere, orokorrean, ahulenak.

Gutunaren inguruko ezjakintasuna adituen batzordeen txostenek estatu-tuetan eta egoera hau pairatzen duten erkidegoetan duten eragin txikiari ere egotzi diezaiokegu. Neurri batean, txosten horien konplexutasun teknikoari dela eta gertatzen da hori, 100 orri baino gehiagokoak baitira batzuetan. Kontuan hartzekoa da lehen txostenetik aurrera, hurrengo guztiek aurreko txostenen zatiak eransten dituztela. Estrategia diskurtsibo horren bidez, adituen batzordearen argudiatzea indartu nahi dute. Kontua da, txostenak publikoak direnez, estrategia horiek sinplifikatu egin behar direla, eta txosten ulergarriagoaren alde egin behar dela, alegia, jarraipen prozesuko helburuak lortzeko erabilgarriagoak izango diren txostenen alde. Jarraipen prozesuaren helburua da, finean, Aldeei eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen babesa eta sustapena hobetzen laguntzea.

AMAIERA. ZENBAIT ERRONKA DATOZEN 25 URTERA BEGIRA

I
Orain arte, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna tresna eraginkorra izan da Europako hizkuntza ahulenak babestu eta sustatzeko. Indarrean sartu zenetik gaur egun arte, berretsi duten herrialdeek nabarmenki egin dute aurrera. Guztiarekin ere, lan asko egin beharra dago gutuna zabaltzeko, eta aurre egin behar zaie bere eraginkortasuna zalantzan jarri duten zenbait kritikari. Argi dago itun honek bide luzea duela aurretik eta oso beharrezkoa dela oraindik ere, bai indarrean duten estatu-tuetan, bai eta sinatu ez duten estatu anitz horietan ere. Nolanahi ere, gaur egungo Europako gutxiengoek gainean dituzten erronkei era zuzenagoan aurre egiteko era berrietan interpretatu beharko da Gutuna.

Baliozko tresna izateko, datozen garaiei bizirauteko gai izan behar da Gutuna. Hein batean, horren balioa testuinguru berrira egokitzeko duen gaitasunaren araberakoa izango da. Bereziki premiazkoa da garai berriak definitzen dituen bilakaera teknologikora egokitu dadin. Aipatutako premia horren adibide da 11. artikuluari (komunikabideak) egin beharreko berrirakurketa. Eremu urriko hizkuntza askok paperezko komunikabideetan agerpen aktiboa zuten, eta, denborarekin, papera ordezkatzera etorri dira euskarri teknologikoak, egunkariak, irratiak, eta, batez ere, sare sozialak eta euskarri berriak. Adituen batzordeak positiboki aztertu behar ditu faktore horiek guztiak. (cf. Dunbar eta Moring 2012).

Azken gogoeta gisa, Europar Batasunari eskatzen diogu Gutunaren espiritua bere egin dezan eta diru-laguntzak eskaini diezazkien eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen sustapenerako programei. Politika-publiko europarrik gabe, hizkuntza askok ezingo diote aurre egin haien egoera larriari. Agian politika horiek abiaraztea ez da nahikoa izango, baina beharrezkoak baldintza da gaur egungo une historikoa kontuan hartzen badugu; alegia, kontuan izanik botereak nola tratatzen dituen gutxiengoak: gaiztakeriaz eta hierarkiaz. Hori saihesteko, EBak aldatu egin behar du bere eleaniztunaren eta hizkuntza-aniztasunaren politika. Izan ere, orain arte politika hori hizkuntzen merkataritzan oinarritu da, eta kontzeptu utilitario neoliberalak hartu du abiapuntutzat, hots, hizkuntza gutxiengoen babesaren kontra egiten duen abiapuntua (Climent-Ferrando 2016).●

OHARRAK

1. Hizkuntza tipologia hau-zeini Gutunak aipatzen dituen hizkuntza ofizialak eta etorkinenak gehitu beharko zitzaizkion- ez dator guztiz bat ituna berretsi duten Europako Kontseiluko estatuetakoa konstituzioetan agertzen diren kategoria legalekin. Horrelako konparazio bat egiteko ikus Ruiz Vieytez (2009) y Arzo (2014b).
2. Gutunaren historiari buruz gehiago jakiteko ikus Sokolovska (2016).
3. Azken urteetako aurrerapausoak eta etorkizuneko atxikimendu posibleak hobeto ulertzeko, urtean bitan egiten den Europako Kontseiluko Idazkaritza Nagusiaren txostena (2016) gomendatzen dugu. Txosten hori webgune honetan eskuragarri dago: <http://www.coe.int/en/web/european-charter-regional-or-minority-languages/secretary-general-reports>.
4. Gutunaren egituraren eta edukiaren inguruko azalpen zehatza jasotzeko, gomendagarria da Europako Kontseiluak onartutako testuarekin batera datorren *azalpen txostena* aztertzea. Gainera, Gutunari buruzko bibliografia zabaletik (ikus: <http://www.coe.int/en/web/european-charter-regional-or-minority-languages/publications>), oso gomendagarria da Woehlingen iruzkin kritikoa (2005) eta, horrez gain, azkenaldian beste autore batzuek gutunaren artikulua bakoitzari eginiko azterketa xehea: Nogueira López, Ruiz Vieytez eta Urrutia Libarona (2012).
5. Estatu bakoitzaren aurrerapenak xeheki ezagutzeko, ikus Idazkaritza Nagusiak urtean bitan Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarrari aurkeztutako txostenak, guztiak webgune honetan eskuragarri: <http://www.coe.int/en/web/european-charter-regional-or-minority-languages/secretary-general-reports>.
6. Gutunaren erronka legalak, anbigutasunak, eta interpretatzeko orduan dituen mugak biltzen dituen analisi interesgarria irakurtzeko, ikus Dunbar (2008).
7. Ikus Prina (2012) hobeto ulertzeko horrelako argibideak sortzeak berekin dakartzan erronkak. Bereziki interesgarriak dira ere European Centre for Minority Issues (Grin 2003) institutuak 2000an proposatutako Flensburg Recommendations delakoak aztertzea, eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri politikoen inplementazioaren ingurukoak.
8. Ministroen Kontseiluaren gomendio hauek, bai eta adituen batzordeak onartutako txosten guztiak ere, eskuragarri daude Europako Kontseiluaren webgunean: <http://www.coe.int/en/web/european-charter-regional-or-minority-languages/reports-and-recommendations>
9. 1980tik indarrean dagoen *Tratatuen Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioaren 27.* artikuluari jarraiki: “Alde batek ezingo ditu bere barne-zuzenbideko xedapenak arrazoitzat aipatu akordio bat ez-betetzea justifikatzeko”
10. “Nahiz eta 2.1 artikulua erreferentzia egin ‘bakoitzaren lurraldean hitz egiten diren eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza guztiei’ eta 11.1 artikulua: ‘eskualdeetako

**Europar
Batasunari
eskatzen diogu
Gutunaren
espiritua bere
egin dezan eta
diru-laguntzak
eskaini
diezazkien
eskualdeetako
eta eremu urriko
hizkuntzen
sustapenerako
programei.
Politika-publiko
europarrik gabe,
hizkuntza askok
ezingo diote
aurre egin haien
egoera larriari.**

**EBak aldatu egin
behar du bere
eleaniztunaren
eta hizkuntza-
aniztasunaren
politika. Izan ere,
orain arte
politika hori
hizkuntzen
merkataritzan
oinarritu da, eta
kontzeptu
utilitario
neoliberalak hartu
du abiapuntutzat,
hots, hizkuntza
gutxiengoen
babesaren kontra
egiten duen
abiapuntua.**

edo eremu urriko hiztunei', 1. artikuluko definizioak beste zenbait alderdi barne hartzen ditu, espresio hau erabiltzen baitu: 'tradizioz hitz egiten direnak'".

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Arzoz, Xabier (ed.) (2008). *Respecting linguistic diversity in the European Union*. Amsterdam: John Benjamins.

Arzoz, Xabier (2014a). "Legal Mobilisation at the Subnational Level: The Case of Language Rights in the Spanish Autonomous Community of Navarre". In: Anagnostou, Dia (ed.), *Rights and courts in pursuit of social change*. Oxford: Hart Publishing, 53-77.

Arzoz, Xabier (2014b). "La política lingüística de los estados miembro y el derecho de la Unión Europea". *Revista Española de Derecho Europeo*, 52, 11-48.

Climent-Ferrando, Vicent (2016). "Linguistic neoliberalism in the European Union. Politics and policies of the UE's approach to multilingualism". *Revista de Llengua i Dret*, 66, 1-14.

Duchêne, Alexandre (2008). *Ideologies across nations: The construction of linguistic minorities at the United Nations*. Berlin: Mouton de Gruyter.

Dunbar, Robert (2008). "Definitively interpreting the European Charter for Regional or Minority Languages: the legal challenges". In: Robert Dunbar, Gwynedd Parry eta Simone Klinge (ed.). *The European Charter for Regional or Minority Languages: legal challenges and opportunities*. Strasbourg: Council of Europe, 37-61

Dunbar, Robert (2012). "The Committee of Experts of the European Charter for Regional or Minority Languages (the CECL)". In: Gauthier de Beco (ed.), *Human rights monitoring mechanisms of the Council of Europe*. London: Routledge, 150-170.

Dunbar, Robert eta Moring, Tom (2012). "Article 11. Media". In: Nogueira López *et. al.*, 373-424.

Grin, François (2003). *Language policy evaluation and the European Charter for Regional or Minority languages*. Hampshire: Palgrave MacMillan.

Heller, Monica (2011). *Paths to post-nationalism*. Oxford: Oxford University Press.

Holborow, Marnie (1999). *The politics of English. A Marxist view of language*. London: Sage.

Iglesias Velasco, Alfonso J. (2013). "Reflexiones sobre la implementación de los tratados internacionales por los tribunales domésticos: especial referencia a España". *Anuario Español de Derecho Internacional*, 29, 165-216.

Kraus, Peter (2008). (2008). *A union of diversity. Language, identity and polity-building in Europe*. Cambridge: Cambridge University Press.

- Malloy, Tove; Medda-Windischer, Roberta eta Lantschner, Emma (2009). "Measuring the security of persons belonging to national minorities: Indicators for assessing the impact of the FCNM in its State Parties". *Security and Human Rights*, 4, 277-293.
- McDermott, Philip (2016). "Language rights and the Council of Europe: A failed response to a multilingual continent?" *Ethnicities* [doi: 10.1177/1468796816654725].
- Nogueira López, Alba; Ruiz Vieytez, Eduardo J. eta Urrutia Libarona, Iñigo (ed.) (2012). *Shaping language rights*. Strasbourg, Council of Europe.
- Piller, Ingrid (2016). *Linguistic diversity and social justice*. Oxford: Oxford University Press.
- Pla Boix, Anna M. (2012). "Article 9. Judicial authorities". In: Nogueira López *et. al.*, 301-336.
- Prina, Federica (2012). *Policy-to-outcome indicators and the ECRML*. ECMI working papers #61.
- Quer, Josep eta de Quadros, Ronice Müller (2015). "Language policy and planning in deaf communities". In: Adam C. Schembri eta Ceil Lucas (ed.), *Sociolinguistics and deaf communities*. Cambridge: Cambridge University Press, 120-145.
- Ruiz Vieytez, Eduardo J. (2009). "Constitutions, languages, definitions and the European Charter for Regional or Minority Languages". *Revista de Llengua i Dret*, 51, 231-257.
- Sokolovska, Zorana (2016). *Les débats sur les langues dans une Europe en project*. Thèse de doctorat inédite. Université de Strasbourg/Université de Fribourg.
- Soldat-Jaffe, Tatjana (2015). "The European Charter for regional or minority languages: a *magnum opus* or an incomplete *modus vivendi*". *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 36(4), 372-385.
- Urciuoli, Bonnie (2016). "The compromised pragmatics of *diversity*". *Language and Communication*, 51, 30-39.
- Wheatley, Mark eta Pabsch, Annika (2012). *Sign language legislation in the European Union* (2 ed). Brussels: European Union of the Deaf.
- Williams, Glyn eta Williams, Gruffudd (2016). *Language, hegemony and the European Union. Re-examing 'Unity in Diversity'*. Palgrave Macmillan.
- Woehrling, Jean-Marie (2005). *The European Charter for regional or minority languages. A critical commentary*. Strasbourg, Council of Europe.